AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3134

793/2013 EBAZPENA, maiatzaren 21ekoa, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko zuzendari gerentearena, Eduardo Resines Galaz jauna Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Zerbitzu Orokorretako zuzendariorde izendatzen duena.

Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Zerbitzu Orokorretako zuzendariorde lanpostua betetzeko deialdia 2013ko maiatzaren 7ko EHAAn argitaratu zen (86. zk.), zuzendari gerente honen martxoaren 15eko 426/2013 Ebazpenaren bitartez.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagaiek aurkeztutako agiriak aztertu dira, baita beren baldintza profesionalak curriculum vitaean jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak aztertuta, Eduardo Resines Galaz jauna deialdiko lanposturako egokia dela eta bertan jarduteko behar bezalako trebakuntza duela ikusi da.

Hori dela eta, Zuzendaritza Gerentzia honek honako hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Eduardo Resines Galaz jauna Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Zerbitzu Orokorretako zuzendariorde izendatzea.

Bigarrena.– Izendapen honek interesdunari jakinarazten zaion egunetik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gurutzeta-Barakaldo, 2013ko maiatzaren 21a.

Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko zuzendari gerentea,
JOSÉ SANTIAGO RABANAL RETOLAZA.